Usurbilgo Udala

Espediente zenbakia: 2024LIRZ0002

USURBILGO UDALAREN KIROL INSTALAKUNTZEN GARBIKETA ZERBITZUA

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

PROZEDURA IREKIA, ERREGULAZIO ARMONIZATUA
KONTRATU ERRESERBATUA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen arabera egiten den kontratuak xede hau izango du: garbiketa zerbitzuak ematea Usurbilgo Udalaren kirol instalakuntzetan, Preskripzio Teknikoen agirian, Administrazio Klausula Partikularren agiri honetan eta kontratuaren adjudikaziodun gertatzen den eskaintzan zehaztutako baldintzetan.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

Kontratazio hau zerbitzu-kontratu gisa gauzatuko da eta, lehenago aipatutako baldintza administratibo eta teknikoez gain, Sektore Publikoko Kontratu Legearen 308. artikuluak eta hurrengoek arautzen dute.

KHA kodetzea: 90910000-9: garbiketa zerbitzuak

- **KONTRATU ERRESERBATUA**

Kontratu hau, 9/2017 Legeko laugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren baitan kontratu erreserbatua izango da. Hori horrela, lizitazio prozedura honetan gizarte ekimeneko enplegu-zentro bereziek bakarrik hartu ahal izango dute parte. Xedapen horretan honakoa xedatzen da:

Laugarren xedapen gehigarria. Kontratu erreserbatuak.

1. *Ministro Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunen erabakien bidez, gutxieneko erreserba-ehunekoak ezarriko dira zenbait kontratu edo kontratu horietako zenbait sorta adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea **gizarte-ekimeneko** enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei erreserbatzeko, edo gutxieneko erreserba-ehuneko bat ezarriko da kontratu horiek enplegu babestuko programen barruan gauzatzeko, baldin eta enplegu-zentro berezietako, laneratze-enpresetako edo programetako langileen artean desgaitasuna dutenen edo gizartetik baztertuta daudenen ehunekoa enpresa horien erreferentziako araudian aurreikusitakoa bada, eta, betiere, gutxienez 100eko 30 bada. Enplegu-zentro berezi eta laneratze-enpresa horiek arautu zituzten, hurrenez hurren, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen eta haien Gizarteratzearen Lege Orokorraren testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Gizarteratze Enpresen*

Araubidearen Legeak (abenduaren 13ko 44/2007 Legea), eta lege horietan ezarritako betekizunak bete behar dituzte halakotzat hartuak izateko.

2. *Lizitazio-iragarkian, xedapen honen berri eman beharko da.*
3. *Xedapen gehigarri honek ezarritako erreserba aplikatzen zaien kontratazio prozeduretan ez da eskatuko lege honen 107. artikuluan aipatzen den behin betiko bermea, salbu eta kontratazio-organoak, aparteko arrazoiengatik, beharrezkotzat jo eta espedientean horrela justifikatzen badu.*

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2021eko urriaren 6ko Epaiak (C-598/19 auzia) ezarri zuenez, 2014/24/EB Zuzentarauaren 20. artikuluaren 1. paragrafoa honela interpretatu behar da: estatu kide batek xedapen horretan adierazitakoez gain baldintza gehigarriak ezarri ditzake, eta, ondorioz, operadore ekonomiko jakin batzuk erreserbatutako kontratu publikoak esleitzeko prozeduretatik kanpo utzi, betiere estatu kide horrek tratu- eta proportzionaltasun-berdintasunaren printzipioak errespetatzen baditu.

Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 215/2022 epaiak adierazi duen gizarte-ekimeneko zentroen aldeko erreserba printzipio horien aurkakoa dela, epai hori ez da irmoa, Auzitegi Gorenak bere aurkako kasazio-errekurtsoa izapidetzeko onartu duelako (2023ko urriaren 2ko Autoa, 6905/2022 zenbakiko kasazio-errekurtsoa), eta epai hori ez dator bat beste justizia-auzitegi nagusi batzuen epaiekin; beraz, eztabaida ebazten duen jurisprudentzia-doktrina ezagutu bitartean, kontratu honen ondorioetarako, Gizarte Ekimeneko Zentroei erreserbatzea erabaki da.

Gizarte Ekimeneko Zentroen aldeko hautua haien ezaugarrietan oinarritzen da, ezaugarri horiek zentroen balio soziala eta ekonomikoa optimizatzen dutelako, desgaitasuna duten pertsonei ordaindutako enplegua bermatzeko helburua maila handiagoan lortzeko. Irabazi-asmorik ezak, etekinak helburu sozialetan birinbertitzeko betebeharrak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen berezko printzipio demokratiko eta parte-hartzaileek, egiaztatzen dute helburu sozial horiek lortzeko asmoa dutela enpresa-arrazoi hutsetan oinarritu gabe.

Horiek horrela, **kontratu hau Gizarte Ekimeneko Enplegu Zentro Bereziei erreserbatzen zaie. Enpresa lizitatzaileek egiaztatu beharko dute gizarte-ekimeneko zentro gisa inskribatuta eta kalifikatuta daudela, eskaintza aurkezteko epea amaitu baino lehen, Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zentroen Erregistroan (SEPE) edo beste erregistro autonomikoetan**.

- **LOTEAK: Bakarra**

Kontratu honen xedea Usurbilgo Udalaren instalazioen garbiketa-zerbitzua ematea da. Zerbitzuak emateko eremua eta egin beharreko lanak koordinatzeko beharra kontuan hartuta, prestazio horiek ezin dira esleitu eta kontratista desberdinek modu independentean egin. Hori dela eta, kontratuaren xedea ezin da lotetan banatu.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Prestazioa burutzeko epea ondorengoa izango da: 2 urtekoa, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, kontratazio organoak kontratua beste 2 aldiz luzatu ahal izango du, urtebeteko epetan. Hortaz, gehienez ere 4 urtetako iraupena izango du. Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, baldin eta luzapen-erabakia kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez ere bi hilabete lehenago jakinarazten bazaio.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA BALIO ESTIMATUA

Kontratuaren aurrekontua kalkulatzeko, aurreko kontratistak emandako subrogazio taulako informazioa hartu da kontuan, bai eta lan-hitzarmen aplikagarria ere: Gureak Garbitasuna, S.L.U. enpresaren hitzarmen kolektiboa (20001842011996 kodea). GAO, 192. Zk., 2023ko urriak 04koa.

Subrogazio taulako 8. Langilearen kostua ez da sartu, 2. Langilearen ordezkoa delako, hau itzuli artekoa. 2. Langilearen lan-kostua altuagoa denez, hau hartu da kontuan lizitazioaren aurrekontua zehazterakoan.

Horiek horrela, langileei dagokien kostua, 2023 urterako, honakoa da:

Langilea	Urteko soldata gordina	Gizarte segurantza bonifikatuta	Lan-kostua guztira
1 Langilea	16.432,18 €	1.130,53 €	17.562,71 €
2 Langilea	30.219,82 €	2.079,12 €	32.298,94 €
3 Langilea	20.867,55 €	1.435,69 €	22.303,24 €
4 Langilea	16.329,97 €	1.123,50 €	17.453,47 €
5 Langilea	16.663,56 €	1.146,45 €	17.810,01 €
6 Langilea	11.976,07 €	967,67 €	12.943,74 €
7 Langilea	4.072,68 €	280,20 €	4.352,88 €
Guztira			**124.725,00 €**

Hurrengo taulan, aurrekontuaren kontzeptu guztiak jaso dira, 2024tik aurrera gauzatuko den kontratu bat dela kontuan hartuta:

- **Lan-kostuak**: 2023ko datuak hartu eta 2024tik aurrerako lan-kostuak kalkulatzeko, lehen aipatu lan-hitzarmenak soldaten igoera finko bat aurreikusten duela kontuan hartu beharra dago (2024rako, EAEko KPI + %1,40; 2025erako, EAEko KPI + %1,40; 2026rako, EAEko KPI), kontratuaren iraupen osorako, balizko luzapenak barne (Estatuko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordean 29/2019 txostena eta Andaluziako Juntako Kontratu Errekurtsoen gaineko Auzitegi Administratiboaren 554/2023 ebazpena, 2023ko azaroak 3koa).

Lehendabiziko bi urtetarako EAEko KPI %3,1ekoa izango dela estimatu da, eta horri lan-hitzarmeneko %1,4 batu zaio. Hurrengo bi urtetarako EAEko KPI %1ekoa izango dela estimatu da.

- **Materialak**: Kontratua gauzatzeko kontratistak erabiliko dituen material ezberdinen kostua kalkulatzeko aurreko oinarrizko kostuaren %5eko kopuru bat estimatu da. Langile eta materialen batuketak zuzeneko kostuen kopurua ematen du.

- **Gastu Orokorrak era Onura Industriala**: Aurreko zuzeneko kostuei enpresaren gastu orokorrak eta onura industrial arrazoigarri bat gehitu zaie, BEZ gabeko aurrekontua lortzeko. Eta ondoren BEZ-a gehitu, banatuta, lizitazioaren gehienezko aurrekontu osoaren emaitza lortzeko.

		1 urtea	2 urtea	3 urtea	4 urtea
Langileak		130.337,62 €	134.769,10 €	136.116,79 €	137.477,96 €
Materialak	5%	6.516,88 €	6.738,46 €	6.805,84 €	6.873,90 €
Kostuak guztira		**136.854,50 €**	**141.507,56 €**	**142.922,63 €**	**144.351,86 €**
Gastu Orokorrak	25%	34.213,63 €	35.376,89 €	35.730,66 €	36.087,96 €
Onura Industriala	6%	8.211,27 €	8.490,45 €	8.575,36 €	8.661,11 €
Aurrekontua		**179.279,40 €**	**185.374,90 €**	**187.228,65 €**	**189.100,93 €**
BEZ	21%	37.648,67 €	38.928,73 €	39.318,02 €	39.711,20 €
Guztira		**216.928,07 €**	**224.303,63 €**	**226.546,66 €**	**228.812,13 €**
OINARRIZKO AURREKONTUA (1+2 urteak) BEZ gabe					**364.654,30 €**
Oinarrizko aurrekontuaren BEZ-a (%21)					**76.577,40 €**
OINARRIZKO AURREKONTUA (1+2 urteak) BEZ BARNE					**441.231,70 €**

Aurrekontu horretatik abiatuta, SPKLko 101 artikuluaren arabera, kontratuaren balio estimatua zehazteko pleguetan aurreikusitako luzapenak eta aldaketak gaineratu behar dira.

Balio estimatua	
OINARRIZKO AURREKONTUA (1+2 urteak) BEZ gabe	364.654,30 €
LUZAPENAK (3+4 urteak) BEZ gabe	376.329,58 €
AURREIKUSITAKO ALDAKETAK	- €
BALIO ESTIMATUA	**740.983,88 €**

Ondorioz:

- **Lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontua (lehendabiziko bi urteak) 364.654,30 euro. Horri dagokion BEZ-a 76.577,40 euro. Guztira, 441.231,70 euro**.
- **Balio Estimatua: 740.983,88 euro, BEZ gabe.**

Aurreko kopuruak finkatzeko erabilitako datu eta estimazioak legeak ezarritakoaren araberako aurrekontua eta balio estimatua zehazteko erabilitako parametroak dira. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontu horren arabera aurkeztu beharko dituzte eskaintzak lizitatzaileek, eta kalitate/prezio harreman onenaren eskaintzak finkatuko du kontratuaren prezioa. Prezio horretan sartuta egongo dira kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak (plangintza, koordinazioa, bilerak, prestaketa, saioak bideratzea, memoriak...) zein gastu orokorrak eta orotariko zerga, tasa eta arbitrioak. Kontratua gauzatzerakoan, lizitazioaren aurrekontua finkatzeko erabilitako datu eta estimazioetan aldaketa edo gorabeherarik egoteak ez dio kontratistari konpentsaziorik edo prezioaren berrikuspenik eskatzeko eskubiderik emango, kontratuaren gauzatzea bere arrisku eta menturara izango baita, behin eskaintza aurkeztu eta kontratua formalizatu eta gero.

4. FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan 1 4300.227.342.00.01 2024 partidaren kontura.

5. ORDAINKETA MODUA

Esleipen prezioa hileroko 12 zati finkotan ordainduko da, aurreko hilabeteari dagokion faktura aurkeztu eta zerbitzuaren ardura duen udal teknikariak gainbegiratu eta zerbitzuak zuzen eman direla egiaztatu eta gero.

Behin faktura onartuta, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 198.artikuluan legez aurreikusitako epeen barnean ordainduko da.

Enpresa esleipendunak formatu elektronikoan aurkeztuko ditu fakturak, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (FSPOe) (Fakturazioa, eta faktura elektronikoen sarrera puntu orokorra - Egoitza elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia), udal aurrekontua egikaritzeko arauan xedatutakoaren arabera, 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa bultzatu eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza erregistroa sortzekoa, betez.

Unitate organikoen DIR3 kodeak: Usurbilgo Udala:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200739
2. Organo kudeatzailea: L01200739
3. Unitate izapidetzailea: L01200739

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honen prezioa ez da berraztertuko. Aipaturiko hitzarmen kolektiboan aurreikusitako soldata igoerak aurrekontua eta balio estimatua kalkulatzeko kontuan hartu dira.

7. BERMEAK

7.1. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen.

7.2. BEHIN-BETIKO BERMEA

Ez da eskatzen, SPKLko laugarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraiki.

Haatik, kontratuaren esleipendun den enpresaren proposamen ekonomikoa hasiera batean anormal edo neurriz kanpokotzat jo izan balitz, ondoren onartua izateko esleipen-zenbatekoaren % 5eko bermea eratu beharko du.

Aipatu bermea eratzeko epea hamar egun baliodunekoa izango da eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 108. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz eratu ahal izango du, eskudirutan jarritakoak izan ezik, horiek Usurbilgo Udalaren edozein kontu korrontetan sartu behar dira eta.

Bermea aipatu Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 111.artikuluan xedatutakoa betez itzuliko da, behin berme-epea amaituta eta enpresa esleipendunak kontratuzko betebehar guztiak bete dituenean.

II. KONTRATAZIOA EGITEKO PROZEDURA

8. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

Kontratu hau prozedura ireki bidez adjudikatuko da, ekonomikoki onuragarriena den eskaintzaren alde.

Hona hemen prozedura irekia adjudikatzeko hartuko diren irizpideak, daukaten garrantziaren eta ematen zaien ponderazioaren arabera goitik behera ordenaturik:

1.- Formulen aplikazioaren bitartez balioesteko irizpideak: 51 puntu. (C artxibo elektronikoa).

1.a) Eskaintza ekonomikoa: 40 puntu, gehienez.

Eskaintza ekonomikoaren kopurua horrela finkatu beharko dute lizitatzaileek:

- Kontratuaren iraupenari eta luzapenei dagokien urte bakoitzarentzat prezio bat eskainiko dute. Hori izango da, kontratua esleituz gero, urte bakoitzeko aplikatuko den prezioa.
- Aurreko urteko eskaintza guztien batuketa adieraziko dute. Hau izango da lizitatzailearen eskaintza ekonomiko osoa, BEZ gabe, formula aplikatzeko erabiliko dena.

- Urte bakoitzari dagokion eskaintzen batuketa eta eskaintza ekonomiko osoan adierazitako kopurua **bat ez badatoz**, eskaintza ekonomikoak alda ezin daitezkeela kontuan hartuta, **lizitatzailea prozeduratik kanpo gelditu ko da, zuzentzeko aukerarik gabe**.

	Lizitazioaren gehienezko aurrekontua BEZ gabe	Eskaintza
1. urtea	179.279,40 €	… €
2. urtea	185.374,90 €	… €
3. urtea	187.228,65 €	… €
4. urtea	189.100,93 €	… €
Guztira	**740.983,88 €**	**… €**
		Eskaintza ekonomiko osoa

40 puntu emango zaizkio eskaintza ekonomiko baxuena egiten duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa formula honetatik aterako da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da,

$$Pl = Ob/Ol \times 40$$

Non-eta:

Pl: lizitatzailearen puntuazioa
Ob: eskaintzarik txikiena
Ol: lizitatzailearen eskaintza

Diru-eskaintzetan egon daitezkeen gehiegizko jaitsierak 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduko 85. artikuluan finkaturiko irizpideen arabera baloratuko dira, SPKL-ko 149. artikuluko prozedura jarraituta.

1.b) Hobekuntzak: 6 puntu, gehienez.

Zerbitzuaren hobekuntzatzat hartuko dira, esleipen irizpide hauetan ezarritakoaren arabera puntuagarriak eta proposamenean kostu gehigarririk gabe sartzen direnak, honako hauek:

- Lanabes eta baliabide lagungarri gabe irisgarriak ez diren kristal guztiak garbitzea: igerilekukoak barrutik eta kanpotik, fatxadakoak, leiho altuak kanpotik, etab., gehienez puntu 1:
  - Urtean 4 aldiz edo gehiago: puntu 1.
  - Urtean 3 aldiz: 0,66 puntu.
  - Urtean 2 aldiz: 0,33 puntu.
  - Urtean behin, edo eskaintzarik ez: 0 puntu.

- Oiardo kiroldegiko sarrerako alfonbra eta antzekoak hornitzea, aluminiozko egituraduna, gehienez puntu 1:
    - Hornitzea, mantentzea eta beharrezkoa denean berritzea: puntu 1.
    - Ez hornitzea: 0 puntu.

- Konpreseroak hornitzea, mantentzea eta bere hondakinak kudeatzea, kontratuak bere baitan hartzen dituen kirol instalazio guztietan (38 unitate): gehienez 2 puntu.
    - Emakumezko eta egokitutako komun guztietan konpresero aproposak hornitzea, mantentzea, tamaina egokikoak, tapadunak, plastikozkoak edo metalikoak eta horiek kudeatzea, astean hirutan hustu eta garbituz: puntu 2.
    - Emakumezko eta egokitutako komun guztietan konpresero aproposak hornitzea, mantentzea, tamaina egokikoak, tapadunak, plastikozkoak edo metalikoak eta horiek kudeatzea, astean bitan hustu eta garbituz: 1 puntu.
    - Emakumezko eta egokitutako komun guztietan konpresero aproposak hornitzea, mantentzea, tamaina egokikoak, tapadunak, plastikozkoak edo metalikoak eta horiek kudeatzea, astean behin hustu eta garbituz: 0 puntu.

- Lehortze bizkorreko esku-lehorgailu elektrikoak hornitzea eta mantentzea Oiardo kiroldegian, esku-papera ordezteko (15 unitate): gehienez 2 puntu.
    - Irizpide hauek guztiak betetzen dituen esku lehorgailuak hornitzea eta mantentzea: kontsumoa gehienez 1800w, zarata baxua (gehienez 85 db), eskuak lehortzen azkarra (15 s gehienez): 2 puntu.
    - Irizpide hauetatik bi betetzen dituzten esku lehorgailuak hornitzea eta mantentzea: kontsumoa gehienez 1800w, zarata baxua (gehienez 85 db), eskuak lehortzen azkarra (15 s gehienez): puntu 1.
    - Irizpideak betetzen ez dituzten esku lehorgailuak ez dira onartuko: 0 puntu.

Oharra: aipatu esku-lehorgailuak udalaren jabetzara pasako dira kontratua bukatzerakoan.

1. c) Berdintasun irizpideak: 5 puntu, gehienez

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indakeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategineko 22.5 artikuluko a) atalaren baitan, 5 puntu emango zaizkie emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko bereizgarri, ziurtagiri edo etiketa bat izateagatik eta kontratua gauzatu bitartean horri lotutako langileei berdintasun neurri edo betekizun horiek aplikatzeagatik.

Horretarako, baliozkotzat hartuko dira administrazio publikoek berdintasunaren alorrean emandako enpresa-bereizgarriak, hala nola honako hauek:

- Emakunde-Emakumenaren Euskal Erakundearen “Emakumeen eta Gizonen Berdintasu nerako Lankidetza Erakundea” bereizgarria
- Presidentetzaren, Gorteekiko Harremanen eta Berdintasunaren Ministerioaren “Berdinta suna Enpresan” bereizgarria
- Antzekoa edo baliokidea den beste edozein ziurtagiri

Halakorik eduki ezean, Zuzenbideak onartutako edozein frogabideren bitartez ziurtatu behar da halako bereizgarriak edo ziurtagiriak betetzeko eskakizunak betetzen direla.

2.- Balio-iritzien bitartez balioesteko irizpideak: Memoria teknikoa, 49 puntu gehienez (B artxibo elektronikoa)

ADI! Memoria honetan ezin izango dira aurreko atalean aipaturiko hobekuntzei dagokien aipamenik sartu, hau da, honako hobekuntzen aipamenik gabe osatu behar da memoria: kristalen garbiketa, alfonbren berritzea zein konpreseroak edo esku-lehorgailuen maiztasunei buruzkoak.

1. GARBIKETA PLANA: 5 orri alde bietatik (10 orrialde) gehienez **(24 puntu gehienez)**
    a. Espazioaren araberako ohiko garbiketa-lanak: garbiketa lanen zerrenda, zeregin denborak, zerbitzu orduak (tipologiaren arabera banatuta), zerbitzuaren maiztasuna eta gauzatzeko ordutegi proposamena (8 puntu arte). Denboraren optimizaziorako hartutako neurriak eta proposatutako lanen funtzionamenduaren egokitasuna baloratuko dira: betetze mailaren kontrola…
    b. Urteko garbitasun mantentze lanen banaketa: garbiketa lanen zerrenda, zeregin denborak, maiztasuna eta gauzatzeko ordutegiak (6 puntu arte). Denboraren optimizaziorako hartutako neurriak eta proposatutako lanen funtzionamenduaren egokitasuna baloratuko dira.
    c. Garbiketa protokoloa: garbitzeko prozedura eta metodoak, makinak, lanabesak eta beharrezko osagarri eta produktuak zehaztuta (6 puntu arte). Espazio bakoitzean zer eta nola garbituko den, zehaztasun maila eta baliabideen optimizazioa baloratuko dira.
    d. Berariaz eta positiboki baloratuko dira garbiketa berezia edo zerbitzu arreta berezia behar duten eremu edo materialen emaitzen kalitatea hobetzeko proposamenak.
    e. Hondakinak kudeatzeko plana: zerbitzuaren antolamendu espezifikoa, zereginen zerrenda, maiztasunak eta materialen ekarpena (4 puntu arte). Arreta berezia behar duten eremu eta materialen kudeaketaren kalitatea hobetzeko proposamenak aztertu eta baloratuko dira.

2. ANTOLAKETA EGITURA: 3 orri alde bietatik (6 orrialde) gehienez **(8 puntu gehienez)**
    a. Garbiketako langileen eta zerbitzuaren koordinatzaile eta arduradunen organigrama eta antolaketa (2 puntu arte). Zuzendaritza eta euskarri egokia edukitzeak kontratuak helburu duen zerbitzua hobeto ematen lagunduko du. Horrenbestez, aintzat hartuko dira eta eskaintzan adierazi beharko dira emandako giza baliabideak.
    Kontuan hartu ahal izateko, argibide zehatzak eman beharko dira (identifikazioa, prestakuntza eta esperientzia):
    - Zerbitzua zuzentzeko langileak, giza baliabideak, laneko arriskuen prebentzioa, prestakuntza, administrazioa, ikuskapena eta kalitate-kontrola.
    b. Ordezkapenak eraginkortasunez eta bizkortasunez gauzatzeko protokoloa (3 puntu arte). Ordezkapenak gauzatzeko denbora, modua, langile poltsa… baloratuko dira.
    c. Langileak antolatzea, kontratuaren exekuzioan egin beharreko zereginei dagokienez (3 puntu arte). Denboraren optimizaziora zuzendutako antolaketa baloratuko da, eraginkorra izatea, ordezkapenak ere kontutan hartzen dituena eta lanen betetze maila kontrolatzeko gaitasuna emango duena.

3. KALITATEA ETA KONTROLA: 3 orri alde bietatik (6 orrialde) gehienez **(10 puntu gehienez)**
    a. Zerbitzuaren kontrol plana: zerbitzuaren kalitatearen eta kontratuaren kontrolaren antolaketa baloratuko da: planaren helburuak, ordu kopurua eta banaketa, zereginak, metodologia eta kontrol-zerbitzuaren egutegia, maiztasuna, antolaketa eta dokumentazio euskarria, neurri zuzentzaileak, jarraipena… (6 puntu arte).
    b. Kontratuaren jarraipen bilerak: helburuak, maiztasuna, antolaketa… (2 puntu arte). Baloratuko dira: udala eta enpresaren arteko komunikatzeko baliabideak, komunikazio-bideak eta -protokoloak ezartzea, denbora optimizatzeko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.
    c. Barne-bilerak, kontratistak bere lan taldearekin: helburuak, maiztasuna, antolaketa (2 puntu arte). Arrazoitu beharko da nola eragingo duen horrek zerbitzuaren kalitatea hobetzerakoan (zer nolako bilerak izango diren, zer landuko den, nola eta non egingo diren, helburuak, jarraipena…).

4. KONTRATUARI ATXIKITAKO BITARTEKOAK: 5 orri alde bietatik (10 orrialde) gehienez **(7 puntu gehienez)**
    a. Kontratuari atxikitako makinen zerrenda, behar den xehetasun teknikoarekin, eta bereziki balioetsita zerbitzurako duten kalitatea eta egokitasuna. Enpresa lizitatzaileak kontratua gauzatzeari atxikitako makineria osagarria baino ez da baloratuko, kontratua gauzatzeko kontratazio-pleguetan zehaztutako nahitaezko makineriaz apartekoa. (3 puntu arte)
    b. Erabili beharreko produktu higieniko-sanitarioen, kontsumigarrien eta hornitzaileen zerrenda: ezaugarriak eta egokitasun teknikoa (2 puntu arte). Baloratuko dira:
        i. Produktu higieniko-sanitarioen eta kontsumigarrien kalitatea, segurtasuna, efizientzia, erabiltzeko erraztasuna, atseginak izatea (paperaren taktua edo produktuen usainak, adibidez): puntu 1 arte.
        ii. Hornitzaileen gertukotasuna, ingurumenarekiko konpromezua (enbalajetan, karbono aztarna ezabatzeko hartutako neurriak…): puntu 1 arte.
    c. Ingurumena zaintzeko hartutako neurriak (informatizazioa, hondakinen kudeaketa, produktuen etiketa ekologikoez haratagoko bestelako neurriak, etab. (2 puntu arte). Baloratuko da paperaren erabilera murriztea, egunerokotasunean informatizazioa sustatzea zerbitzuan, erabilitako produktuek plegu hauen arabera nahitaezkoak diren etiketez gain bestelako neurriak ingurumena ez kaltetzeko, etab.

Eskaintzetan Calibri tipografia erabiliko beharko da, eta letraren tamaina 11 pt.koa izango da. **Orri kopurua gainditzen bada, orri horretatik aurrera ez da baloratuko**.

Baremazio hau aplikatuko zaio aurreko atal bakoitzari:

- Bikaina: atal bakoitzeko puntuazioaren % 90-100 bitartean
- Egokia: atal bakoitzaren puntuazioaren % 75-89 bitartean
- Onargarria: atal bakoitzaren puntuazioaren % 50-74 bitartean
- Eskasa: atal bakoitzaren puntuazioaren % 25-49 bitartean
- Oso eskasa: atal bakoitzaren puntuazioaren % 0-24 bitartean

Irizpide horiek honako kontsiderazio hauei dagozkie, eskaintzen konparazioaren arabera:

- Bikaina: proposamenak eskatutako gutxienekoak modu bikainean erantzuten ditu.
- Egokia: proposamenak eskatutako gutxienekoak modu onean erantzuten ditu, eta zerbitzua hobetzeko ekimenak/proposamenak ditu.
- Onargarria: proposamenak eskatutako gutxienekoak modu onargarrian erantzuten ditu.
- Eskasa: proposamenak era eskasean betetzen ditu eskatutako gutxienekoak.
- Oso eskasa: proposamenak ez ditu gutxieneko baldintza teknikoak betetzen edo ez da behar besteko justifikaziorik aurkeztu.

SPKLren 146.3 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, gutun-azal honetan **25 puntu** lortu behar dira gutxienez hautaketa-prozesuan aurrera jarraitzeko. Puntu kopuru hori lortzen ez duten lizitatzaileak prozesutik kanpo gelditu dira. Lizitatzaileetako batek ere ez badu gutxieneko atalase hori lortzen, kontratazio-organoak bi aukera izango ditu: lehiaketa esleitu gabe uztea edo puntuaziorik handiena lortu duten hiru eskaintzak onartzea.

Lizitatzaileek ez dute, inolaz ere, "B" artxibo honetan datu ekonomikorik adieraziko, ezta formula bidez automatikoki balioetsi daitezkeenek ere. Zehazki, honako hobekuntzen aipamenik gabe osatu behar da artxibo honetan aurkeztu beharreko memoria: kristalen garbiketa, alfonbren berritzea zein konpreseroak edo esku-lehorgailuen maiztasunei buruzkoak. "B" artxiboan halakorik jasoz gero, eta horrek balioespen teknikoen baitako irizpideen balorazioa kutsatzeko arriskurik eragiten badu, kontratazio-mahaiaren aburuz, lizitatzailea prozeduratik kanporatua izango da.

Kontratua esleituz gero, eskaintzan adierazitako konpromiso guztiak (hobekuntzen atalean, txosten teknikoan zein eskaintzaren agiri orotan) kontratuaren egikaritze baldintza berezi bihurtuko dira eta, ondorioz, horien urraketak kontratuan adierazitako zehapenak ezartzeko edo, hala suertatuz gero, kontratua suntsitzeko zio izango dira, plegu honen 27. klausulan adierazten denez.

9. KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA

SAILKAPENA: borondatezkoa da, baina badago kontratu mota honetarako sailkapen bat eta hori duen enpresa batek horren bitartez froga dezake kaudimen ekonomiko zein tekniko osoa (erregelamenduko 37-38 artikuluak):

- Taldea: U
- Azpitaldea: 1 (garbiketa zerbitzuak)
- Kategoria: 2 (urteko bataz-besteko kopurua 150.000 eta 300.000 euro artean)

Kontratatzeko prozedura honetan parte hartu ahalko dute, gaitasun juridikoa nahiz jarduteko osoa izanik, beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoek, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 71. artikuluan kontratatzeko ezartzen diren debekurik ez dutenak.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordeztuta aurkeztu ahalko dira, horretarako emandako nahiko ahala duena. Pertsona juridiko bat ordeztuz hartako kideren bat

aurkezten denean, pertsona horrek dokumentuekin justifikatu beharko du horretarako gaitasuna duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariari kontratatzeko ezintasun kausa horiek eragiten die.

Gainera, pertsona juridikoek kontratu honetako xedearekin harreman zuzena duten jarduerak burutzea izan behar dute helburutzat, eta kontratua behar bezala egikaritzeko behar adina elementu pertsonal zein materialekin hornitutako antolaketa bat izan beharko dute.

Kontratatzeko ahalmena eta kaudimena ENPRESA ESLEIPENDUNAK SOILIK egiaztatuko du, dokumentu hauek aurkeztuta:

9.1.- Enpresariaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren izaera juridikoa egiaztatzeko dokumentuak.

Izaera egiaztatzeko honakoak aurkeztu beharko dira:
- Nortasun Agiri Nazionala pertsona lizitatzaileak bere izenean jarduten baldin badu.
- Beste pertsona edo erakunde bat ordezkatuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze-eskritura aurkeztu beharko dira. Dokumentazioa kalifikatzeko egintzan, botere-askiespenera joko da, ofizioz.
- Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldaketa-eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, inskripzioa aplikagarri den mer ataritzako legeriaren arabera eskagarria denean. Hori eskagarria ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estutuen edo fundazio aktaren bitartez egiaztatuko da, horretan jasota egongo baitira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien Erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira. Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresari ez espainiarren kasuan, erregistro profesional batean edo merkataritzako erregistro batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute eskakizun hori dagokion Estatuko legerian eskatzen denean.
- Enpresari ugari lizitaziora aurkezten baldin badira Enpresen Aldi Baterako Elkarketa eratuz, horietako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko du aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, ABEE bat modu formalean eratzeko konpromisoa helarazi beharko dute, esleipendun suertatuz gero. Halaber, proposamenean ABEE elkarketako kide bakoitzak beteko duen xedearen zatia adieraziko dute, kaudimenarekin lotuta bakoitzaren betekizunak zehaztu eta egiaztatze aldera.

9.2- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 71. artikuluan kontratatzeko zerrendatzen diren debekurik ez izatearen berariazko adierazpen arduratsua.

9.3.- Indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen ziurtagiriak.

9.4.- Atzerriko enpresek edozein ordenatako Espainiako epaitegi edo auzitegietako jurisdikzioaren mende jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duten gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, enpresa lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo diotela ere bai.

9.5.- Bermea: bere kasuan, hala badagokio, bermea ezarri izanaren ziurtagiria.

9.6.- Kaudimena:

- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:* kontratatu nahi den eremuari dagokion lizitatzailearen urteko negozioen bolumena, azkeneko hiru urteetako bolumen handineko urteari dagokiona, gutxienez 320.000 euro izatea.

- *Kaudimen teknikoa eta profesionala:*

Azken hiru urteetan emandako zerbitzuak, eta adieraziko dituzte haien zenbatekoa eta destino publikoa edo pribatua, eta horiek gehituko zaizkie horiei buruzko ziurtagiriak. Azken hiru urteetan gutxienez 3 urteko osoko esperientzia izan beharko du kirol instalakuntzetako eraikinen garbiketa zerbitzuetan, gutxienez urteko 100.000 euroko (BEZ gabe) fakturazio kopuruan.

9.7.- Asegurua: Aktibitatearen baitan edozein motatako istripu edo gertakari kaltekorri aurre egiteko, esleipendunak garbiketa zerbitzua bere hedadura osoan estaliko duen Erantzukizun Zibileko Asegurua itundu beharko du entitate aseguratzaileren batekin, gutxienez 1.000.000 euroko estaldura duena (kalte pertsonaleko estaldura gutxienez 600.000 euro). Aipatu erantzukizun zibileko aseguruak, haurren gaineko kalteez gain, aktibitatea antolatzearen ondorioz gerta litekeen beste edonolako kalte, narriadura eta galera kalte-ordainez estaltzeko adinakoa izan beharko du.

*** Dokumentazio hori guztiori egiazko kopian aurkeztuko da.**

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honetako espedientea, hari gaineratzen zaion dokumentazio teknikoa, pleguak eta dokumentazio osagarria Usurbilgo Udalaren **Kontratatzailearen Profilaren** bidez eskuratu ahalko dira, lizitazio honen iragarkia aipatu **Kontratatzailearen Profilean** argitaratuta agertzen den unetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea amaitu bitartean. Harremanetarako hona jo:

Joxe Martin Sagardia plaza, z/g – 20170 Usurbil
Tel. 943 371951
erregistroa@usurbil.eus
Kontratatzailearen Profila: www.usurbil.eus

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira esklusiboki, lizitazio iragarkia **Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora** bidali eta hurrengo egunetik kontatzen hasita HOGEITA HAMAIKA (31) EGUN NATURALEKO epearen barnean, 14:00ak arte. Iragarkia noiz bidali den zehaztuko da udaleko Kontratatzaile Profilean.

Proposamenak isil-gordekoak izango dira eta izaera hori bermatzeko neurriak hartuko dira proposamenak irekitzen diren unera arte.

Proposamenak modu elektronikoan aurkezteko beharrezkoak diren informazio eta zehaztapen teknikoak, dataren zifratzea eta baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman (www.contratacion.euskadi.eus) daude.

10.1. AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Lizitazio elektronikoaren erabiltzaileentzako Arreta Zentroa: 945016298 (7:45 - 20:00) bitartean.
Interneteko helbidea: www.euskadi.eus
Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

10.2. PROPOSAMENEN EDUKIA

Enpresa lizitatzaileek **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO ("A", "B" ETA "C")** aurkeztu beharko dituzte.

1)"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOAK dokumentu hauek jasoko ditu:
Agiri hauek izango ditu fitxategiak:

a. Helbide elektronikoa

Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b. Kontrataziorako Europar Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCen formulario normalizatua era elektronikoan betetzeko eskuragarri dago kontratatzailearen profilaren lizitazioaren iragarkian.

Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.

c. Gizarte Ekimeneko Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroko, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zentroen Erregistroan (SEPE) edo beste erregistro autonomikoetan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

d. Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren enpresaburuen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

e. Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

2) "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOAK dokumentu hauek jasoko ditu: Plegu administratiboetako 8.2 atalean eta plegu teknikoetan zehaztutako baldintzak betetzen dituen memoria.

Artxibo honetan ez da sartu behar, inola ere ez, modu automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagokion ezein datu, “C” artxiboan barneratu beharko direlarik horiek. Zehazki, honako hobekuntzen aipamenik gabe osatu behar da artxibo honetan aurkeztu beharreko memoria: kristalen garbiketa, alfonbren berritzea zein konpreseroak edo esku-lehorgailuen maiztasunei buruzkoak. “B” artxiboan halakorik jasoz gero, eta horrek balioespen teknikoen baitako irizpideen balorazioa kutsatzeko arriskurik eragiten badu, kontratazio-mahaiaren aburuz, **lizitatzailea prozeduratik kanporatua izango da**.

3) “C” ARTXIBO ELEKTRONIKOAK hauek jasoko ditu:

Proposamen ekonomikoa, plegu honetako 8.1 atalean zehaztutako irizpideak jasotzen dituena, II. eranskin modura gaineratzen den ereduaren araberakoa.

(Oharra: 8.1 atal honetan adierazitako bereizgarri, ziurtagiri etiketa edo bestelako frogabideak ez dira agiri honekin aurkeztu behar; eskaintza onena egin duen lizitatzaileak aurkeztu beharko ditu, SPKLko 150.2 artikuluko izapidean).

11. ALDAGAI EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartzen.

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia horrela osatuko da:

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa, Alkatea, Presidentea.
2. Xabat Beloki Segurola, Kirol saileko zinegotzia, batzordekidea.
3. Xabin Juaristi Arrieta, udal idazkaria, batzordekidea.
4. Gorka Lizarraga Erro, udal kontu-hartzailea, batzordekidea.
5. Libana Taboada Morán, Kirol saileko burua, batzordekidea.
6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, idazkaria.

Halaber, Mahaiak bertaratzea eskatutako udal teknikariak bertaratu ahalko dira, aholkularitza lanak betetzeko.

13. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, honela jokatuko da:

1)“A” ARTXIBOA IREKITZEA:

“A” artxibo elektronikoa aztertuko da, aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, Kontratazio Mahaiak gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango du lizitatzaileak akatsak zuzen ditzan.

2) “B” ARTXIBOA IREKITZEA:

“A” artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, “B” artxiboa ireki eta aztertuko da.

Kontratatzailearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, eta *streaming* bidez transmitituko da publikoarentzat plataformaren bidez. *Streaming* bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

“B”artxiboa ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak dokumentazioa helaraziko dio hura baloratzeko ardura duen teknikariari, eta teknikari horrek balorazio txostena egin beharko du.

3) “C” ARTXIBOA IREKITZEA:

“B” artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, “C” artxiboa ireki eta aztertuko da.

Kontratatzailearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, eta *streaming* bidez transmitituko da publikoarentzat plataformaren bidez. *Streaming* bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz**:** https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

14. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 150.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu eta eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzailearen proposamena kontratazio-organora bideratuko du.

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahaiaren proposamena onartuz gero, udal-zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzailea deituko dute, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita **hamar egun balioduneko epean, SPKLko 140. artikuluan eta plegu honetako 8.1.c, 9. eta 25. klausulatan adierazten den dokumentazioa aurkeztu dezan**.

Dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluak xedatutakoari jarraituz.

III.- KONTRATUA EGIKARITZEA

15. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua egikaritzeaz arduratuko den udal teknikaria, SPKL legeko 62. artikuluan aurreikusten diren funtzioekin, Kirol saileko burua izango da.

16. KONTRATUA EGIKARITZEA

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Esleipendunak, ordainketa osagarri bat jasotzeko eskubiderik gabe, kontratua egoki garatu eta bete dadin beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola, laneko bileratara edo informazio-bileratara joan.

Kontratuaren jabeak bere gain hartzen ditu kontratua burutzeak dakartzan arriskuak. Kontratistak, zerbitzua antolatzerakoan eta ematerakoan, zehazki bete beharko ditu orri honetan jasotako baldintzak eta agindu teknikoen orriko espezifikazioak. Gainera, Udalak zuzenduko, ikuskatuko eta kontrolatuko du zerbitzua, eta horrek idatziz zein ahoz gauzatuko ditu eskumen horiek.

Kontratista izango da egindako lanen eta emandako zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule. Kontratista izango da erantzule, baita ere, kontratua betetzean ez-egiterik, akatsik, egokia ez den metodorik edo ondorio okerrik sortzen bada, eta horrek ondoriorik eragiten badie Administrazioari edo hirugarrenei.

Kontratistak beharrezko ekipamendu eta bitartekariak ekarri beharko ditu lanak ondo gauzatu eta kontratua aipatutako epean bukatzeko. Horrez gain, beharrezko langileak kontratatu beharko ditu.

Kontratuaren jabeak arduradun bat izendatuko du, kontratuaren jabearen eta Udaleko langileen arteko harremanak zuzenean koordinatzeko. Udaleko Zerbitzu Teknikoen eta kontratuaren jabearen artean egin behar diren bileren kopuru eta maiztasuna eta erabili beharreko informazioa Udalak zehaztuko du. Era berean, Udalak informazioa bildu eta esleipenduna egiten ari den lana gainbegiratu ahal izango du.

Kontratua betetzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du.

17. KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN ONDORIOZKO KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratatutako enpresa izango da kontratua egikaritzeko egin beharreko eragiketen ondorioz eragiten diren kalte eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 196. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

18. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak aukera izango du kontratua aldatzeko, interes publikoko arrazoiak direla medio, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasu eta modutan.

19. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aurrikusten dituen ondorioetarako, hilabeteko bermealdia ezartzen da. Berme epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

20. EZ-BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK

20.1. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).

Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

20.2. Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren %10en baliokidea den zigorra ezartzea.

20.3 Arau-hausteak eta zigorrak

Arau-hausteak, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke:

- Arau-hauste arinak santzionatuko dira 600 euro arteko isunez.
- Arau-hauste larriak santzionatuko dira 601 eta 1.500 euro arteko isunez.
- Arau-hauste oso larriak santzionatuko dira 1.501 eta 6.000 euro arteko isunez.

Arau-haustea egin izana egiaztatu ondoren, kontratistari entzun eta gero, kontratazio organoak dagokion santzioa edo zigorra jarriko du, klausula honetan ezarritakoaren arabera eta kontuan izanik dagokion deskontua egin daitekeela fakturan.

Enpresa kontratistak jarraituz gero arau-hauste nabarmena egiten, Zerbitzu Teknikoek kontratua iraungitzeko proposatuko dute, eta adjudikaziodunak ezingo du eskatu kalte-ordainik.

A) HUTSEGITE ARINAK

Hutsegite arinak izango dira:

- Zerbitzuak ematean akatsak egitea baina ez behin eta berriro (lanen kalitateari buruz, baliabide nahiko ez izatea, materialaren egoera eta mantentzea, lanak egiteko erritmoa, Udal Zerbitzuko aginduak ez betetzea, Zuzendaritza, Ikuskaritza eta Kontroleko eskuduntzak erabiltzean, lan

programan aldaketak egitea eta abar) eta urte natural bakoitzean santziorik ez izatea 4 bider baino gehiagotan.

- Jarritako ordutegian Zerbitzuak hasten ordu bat baino gehiago ez atzeratzea, birritan baino gehiagotan hilabete batean edo hamar baino gehiagotan urte bakoitzean.

- Udalari adierazi ez izana eten egin dutela Zerbitzuren bat, edozein dela arrazoi eta betiere 4 bider baino gehiagotan gertatu ez bada urte natural bakoitzean.

- Zerbitzuak egiten dabiltzan langileetan uniformetasunik ez izatea, itxura eta egoera txarraren ondorioz, arropak egitean erabilitako materiala txarra delako, eta betiere akats horiek kontratistak zuzentzen baditu 48 orduko epean, antzemandako akatsaren berri duenetik hasita.

- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzea

- Arduraduna non dagoen ez jakitea edo zerbitzu orduetatik kanpo ez egitea egin beharreko lanak eta betik 4 bider baino gehiagotan gertatu ez bada urte natural bakoitzean.

- Informazioa ez bidaltzea, edo laneko parteak atzeratzea, kontratistak nahitaez egin edo aurkeztu behar dituen txostenak atzeratzea, horietako bakoitzarentzat ezarritako aldizkotasunaz eta betiere 4 bider baino gehiagotan gertatu ez bada urte natural bakoitzean.

- Ez adieraztea makinak hondatuta egon direla, 24 orduko epean eta/edo makinak ez ordeztea, matxura izan zenetik 5 egun igarotakoan, baldin eta udal baimenen bat ez badago tartean.

B) HUTSEGITE LARRIAK

Hutsegite larriak izango dira:

- Kontratistak bete ez izana aplikagarriak diren legezko edo arauzko xedapenek ezarritako baldintzak, indarrean dagoen hitzarmena, eskatutako aseguruak, ingurumena, segurtasun elementuak eta neurriak, laneko betebeharrekoak, Gizarte Segurantzako eta segurtasun eta higieneko obligazioak, zerbitzuari atxikitako langile eta makinekin, eta abar.

- Kontratistak bete ez izana Agirietan edo eskaintzan bertan adierazitako gainontzeko baldintzetako edozein.

- Behin eta berriro zerbitzuak ez ematea behar bezala.

- Osasun preskripzioak ez betetzea edo hauei buruzko aginduak ez betetzea, egoera osasungaitzak, arriskugarritasuna edo ezerosotasuna saihestea, formaz kontratistak ohartarazi ondoren eta hark haiek bete ezean.

- Kontratistari emandako aginduak behin eta berriro bete ez izana, antolamenduari dagokionez, zerbitzuak emateko forma eta erregimenari buruz, edo egoera txarrean dagoen oinarrizko materiala ez jartzea edo konpontzea.

- Ez ordeztea aldi baterako ezintasunean dauden langileak.
- Laneko edozein parte edo aldizkako txostenak faltsutzea.
- Makinak edo instalazioak ez mantentzea behar bezala.
- Zerbitzuei buruz udalak fiskalizatu eta kontrolatzeko eginkizunari aurre egitea edo ezetza ematea.
- Hutsegite arinak behin eta berriro egitea.

C) HUTSEGITE OSO LARRIAK

Hutsegite oso larriak izango dira:

- Ez hastea kontratatutako zerbitzuak ematen, agiri honetan ezarritako epean.
- Kontratatutako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea hiru, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.
- Iruzur egitea zerbitzuak emateko eran, eskatzen diren baliabide egokiak edo oinarrizko elementuak erabili barik, edo zerbitzuari atxikitako materialen bat desagertzea.
- Kontratatutako zerbitzu publikokoak ez diren helburu eta xedeetarako jartzea zerbitzuari atxikitako materialak, edozein modalitate edo titulupean, aurretik Udalaren baimenik izan barik.
- Kontratistak edo haren langileek jasotzea edozein ordainketa edo mesede Zerbitzuaren partikularren edo erabiltzaileen aldetik.

20.4. Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu prezioaren % 50.

20.5. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratuaren prezioaren %50.

Kontratistak plegu honetako 21. klausulan azpikontratatzeko aurreikusten diren baldintzak betetzen ez dituenean zehapen bat ipiniko da, hain zuzen ere:
- Administrazioak eskaturiko informazioa epean ez emateagatik: atzerapen egun bakoitzeko egunean euro bat lizitazio honen objektu den kontratu nagusiko prezioko 1.000 euroko.
- Emandako epean aurkezturiko informaziotik azpikontraten ordainketak ez direla egoki egin ikusten bada: azpikontratuaren zenbatekoaren %5a hilero ordainketa burutu arte, gehienez % 50era artekoa. Gehienezko %50eko mugara iristerakoan administrazioak kontratua etetea erabaki ahal izango du.

20.6. Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen langileak subrogatzeko betebeharrak, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu prezioaren % 50.

21. AZPIKONTRATAZIOA

SPKLko 215.2.a) artikuluari jarraiki, kontratu honen xede diren kirol instalakuntzen garbiketa lanak ezin izango dira azpikontratatu eta kontratista nagusiak egikaritu beharko ditu zuzenki. Azpikontratatu ahal izango diren lan bakarrak hobekuntzetan adierazitakoak izango dira, baldin eta enpresa esleipendunak bere eskaintzan eskaini baditu: lanabes eta baliabide lagungarri gabe irisgarriak ez diren kristal guztiak garbitzea; Oiardo kiroldegiko sarrerako alfonbra eta antzekoak hornitzea; konpreseroak hornitzea, mantentzea eta bere hondakinak kudeatzea; eta lehortze bizkorreko esku-lehorgailu elektrikoak hornitzea eta mantentzea.

Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.

Azpikontratistei edo hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatzea

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 217. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Administrazioak egiaztatu ahal izango du kontratistek zorrotz betetzen dituztela bertan parte hartzen duten azpikontratista edo hornitzaile guztiei egin behar dizkieten ordainketak.

Kontratista esleipendunari Administrazioak hala eskatzen dioenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza bidaliko dio, baita haietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko harremana badute. Era berean, erakunde publiko kontratatzaileak eskatuta, haiei egindako ordainketak bete izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, prestazioa amaitu ondoren, 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzekoan, legez ezarritako ordainketa-epeen barruan. Betebehar horiek exekuzio-baldintza berezitzat hartuko dira. Horiek (informazio bidalketa zein azpikontraten ordainketa) ez betetzeak, ordenamendu juridikoak aurreikusitako ondorioez gain plegu hauetako 20.5 klausulan zehazturiko zigorrak ezarri ahal izango zaizkio.

22. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua lagatzeko aukera egongo da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 214.artikuluko muga eta betekizunekin.

23. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK

Kontratua eteteko arrazoiak dira SPKL-ko 211. eta 313. artikuluetan ezartzen direnak.

24. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagozkion kontratua interpretatu, hura betetzean agertzen diren zalantzak ebatzi, kontratua interes publikoko arrazoien ondorioz aldatu, hura etetea adostu eta haren ondorioak zehazteko eskumenak, Sektore Publikoko Kontratuen Legean nahiz hartako Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barnean eta horietan jasotako betekizun eta ondorioekin.

25. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Hizkuntza gaitasuna:
Usurbilgo Udalarekin, kirol instalakuntzetako erabiltzaileekin eta bestelako hirugarrenekin ohiko harremana izango duenez, kontratatutako enpresako Koordinatzaileak ahozko B1 euskara maila eduki beharko du, ziurtagiri bidez edo udalak horretarako berariaz eginiko frogaren bidez. Froga hau kontratua sinatu aurretik egingo da.

Erabilera plana
Enkargatuak eta garbitzaileek kirol instalakuntzetako erabiltzaileekin, udal langileekin zein espazio bera partekatzen duten beste enpresetako langileekin tarteka harremana izaten duten heinean, esleipendunak hauen euskara erabilera plana aurkeztu beharko du, kontratuaren gauzatzea hasi eta lehendabiziko hiru hilabeteetan, lantaldearen egoera, erabilera eta hobekuntzak nola egingo diren zehaztuko duena.

Zerbitzu-hizkuntza
Usurbilgo Udalak onartutako hizkuntza irizpideei jarraituz, eta bakoitzari eska dakiokeen mailan, herritarrekin espazioak partekatzen dituzten heinean, ahozko harremana gutxienez euskaraz egingo dute adibidez eskerrak ematerakoan, garbituriko eremuei buruzko ohartarazpen errazak egiterakoan, oinarrizko azalpen orokorrak, eta abar. Modu berean, esleipendunak jakinarazpen eta komunikazio idatziak gutxienez euskaraz egingo ditu. Hala ere, kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

Hizkuntza paisaia
Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak gutxienez euskaraz egingo ditu enpresak. Harremanak administrazioarekin Esleipendunak Usurbilgo Udalaren hizkuntza-araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan. Hala, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak gutxienez euskaraz izan eta egingo dira, baita aurkeztu beharreko agiriak ere.

26. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO BALDINTZAK ZEIN NEURRITAN BETE DIREN JARRAITZEA

Kontratua sustatzen duen administrazio-unitatea izango da bertan ezarritako hizkuntza-baldintzak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena egiteaz arduratuko dena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen antzera eta antzeko epeekin, Euskara Zerbitzuari horren berri emanez. Azken horrek onarpena eman edo neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 62. eta 210. artikuluekin bat etorriz:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren ziurtatzeko jarraipena egingo du, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

- Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratuaren arduradunak, jarraipen espezifikorako euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzentzekoak.

27. EGIKARITZEAREN BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua egikaritzeko jarraian adierazten diren baldintza bereziak ezartzen dira. Horiek urratzen baldin badira, Udalak aukera izango du, dagokion espedientea egikarituta eta kontratistari alegazioak aurkezteko aukera emanda, 20. klausulan jasotako zehapenak ezartzeko, SPKLko 192. Artikuluari jarriki, edo kontratua eteteko, SPKLko 211.1.f artikuluaren arabera.

27.1. Egikaritzearen baldintza bereziak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arlotan

Enpresa kontratista lan arloari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari dagokienez indarrean diren legezko xedapenak betetzera derrigortuta dago kontratuaren xede diren zerbitzuetan erabiltzen dituen langileekiko, Administrazioa ez-betetze horren ondoriozko erantzukizunetik salbuetsia geratuko delarik.

Hitzarmen kolektibo aplikagarria: Gureak Garbitasuna, S.L.U. enpresaren hitzarmen kolektiboa (20001842011996 kodea). GAO, 192. Zk., 2023ko urriak 04koa.

Aurrekoak aurreikusten ez duen edozein alderditan: 2019-2026 urteetarako Gipuzkoako Eraikin eta Lokalen Garbikuntzaren Hitzarmena (20000785011981 kodea). GAO, 7. Zk., 2024ko urtarrilak 10ekoa.

Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratatutako enpresak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta soldata hori ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

Enpresa kontratistari, eta berari bakarrik, dagokio pertsonala hautatzea kontratua gauzatzeko adskribitutako lan taldea osatzeko, klausulen agiri honetan exijitutako titulazio eta ukanbeharrekin.

Edonola ere, entitate kontratatzaileak baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzeko ahalmena izango du.

Enpresa kontratugilea ahaleginduko da bere lan taldean egonkortasunari eusten eta taldearen osaketan aldaketarik badago haiek puntualak eta justifikatutako arrazoiengatik izaten, zerbitzuaren funtzionamendu egokiak ez dezan aldaketarik pairatu. Edozein kasutan, beti entitate kontratatzaileari horren berri eman beharko dio.

Enpresa kontratistak bere gain hartzen du betebehar bezala, enpresari orori dagokion zuzendaritza ahalmena modu erreal, eraginkor eta etengabean baliatzeko, kontratuaren exekuzioaz arduratzen den lan taldeko pertsonalaren gainean. Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldaten negoziaketa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, ordezkapenak langileen baja edo ez egoteengatik, Gizarte Segurantzako lege betebeharrak, kotizazio eta prestazio ordainketak barne, hala dagokionean, lan arriskuen prebentzioaren alorreko legezko betebeharrak, diziplina ahalaz baliatzea eta, oro har, enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu loturak dakartzan eskubide eta betebehar guztiak.

Kontratista behartuta dago lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta higienekoak, kontratu honetako zerbitzuetan erabiltzen dituen langileei buruz, eta Administrazioa dago hori bete ez izatearen erantzukizunetik salbuetsita. Usurbilgo Udalak ez du inongo lan-harremanik izango zerbitzuan lanean ari diren langileekiko.

27.2. Ingurumenarekin lotutako baldintza bereziak

Plegu teknikoaren 5, 6 eta 10. ataletan ezartzen diren betekizunek, garbiketa materialak, makineria eta hondakinen kudeaketarekin lotutakoek, alegia, kontratuaren egikaritzearen baldintza berezien izaera izango dute.

Enpresak honako hauek bermatu beharko ditu: langileek ingurumen-prestakuntza egokia dutela; hondakinak behar bezala kudeatzen direla, eta aldez aurretik egindako bereizketa zuzena errespetatzen dela eta ontzien etiketak zuzenak direla. Produktuen fitxa teknikoak uneoro eskura egongo dira.

EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA: erabilitako produktuek honako etiketetako bat eduki beharko dute:

1. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa
2. Beltxarga Nordikoa etiketa
3. Aingeru Urdina etiketa
4. FSC
5. PEFC

27.3. Hizkuntzarekin lotutako baldintza bereziak

Plegu administratibo honen 25. klausulan jasotako hizkuntza betekizunek kontratuaren egikaritzearen baldintza berezien izaera izango dute.

27.4. Eskaintzan adierazitako konpromisoei lotutako baldintza bereziak

Enpresa esleipendunak eskaintzan adierazitako konpromiso guztiek (hobekuntzen atalean, txosten teknikoan zein eskaintzaren agiri orotan) eta, bereziki, eskaintzan hala adieraziz gero, emakume eta gizon arteko berdintasunari lotutako konpromisoek, kontratuaren egikaritzearen baldintza berezien izaera izango dute.

27.5. Berdintasun baldintza bereziak

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indakeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategineko 22.5 artikuluko b) atalaren baitan, honako baldintza hau ezartzen da: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako honako ekintza edo politika hauetakoren bat onartzea eta aplikatzea kontratua gauzatzean:

- Kontratua gauzatzen duen langile taldeari urtean berdintasun-alorreko 5 prestakuntza-ordu gutxienez ematea; erakunde ofizial edo baimendu batek egiaztatu beharko du prestakuntza hori.

28. LAN-KONTRATUETAN SUBROGATZEKO BALDINTZEI BURUZKO INFORMAZIOA

Plegu hauekin I. eranskinean jasotzen da une honetan zerbitzuan dauden langileen zerrenda eta lan-baldintzak jasotzen dituen taula, SPKLko 130. artikuluaren xedeetarako.

Langileei aplikatzen zaien hitzarmena lehenago aipatutakoa da: Gureak Garbitasuna, S.L.U. enpresaren hitzarmen kolektiboa (20001842011996 kodea). GAO, 192. Zk., 2023ko urriak 04koa.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak, plegu honetan oinarrituta egindakoak, izaera administratiboa izango du, eta kontratuan aurreikusten ez den guztian jarraituko zaio arau hauetan xedatzen denari: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, zati batean garatzen duena 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuena, baita ere, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra, onartua 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, eta gainerako arauak, hala badagokio, aplikatzekoak zaizkionak herri administrazioen kontratazioari. Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren eta espedientera gaineratutako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik egongo balitz, Plegu honetan xedatutakoa lehenetsiko da.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak konpondu daitezke arbitrajearen bitartez, indarrean dagoen legerian xedatutakoarekin bat etorriz.

Helegite Berezia

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, ***kontratazioaren alorreko errekurtso berezia*** jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

I. ERANSKINA

-Subrogatzeko eskubidea duten langileak eta aplikatzen zaizkien lan baldintzak-

	Kategoria	Kontratu kodea	Kontratua	Lanaldia	Antzinatasuna	Urteko soldata gordina	Gizarte Segurantza	Oharrak
1	Operario 1	100	Mugagabea	100 %	1993/07/01	16.432,18 €		
2	Encargado/a	100	Mugagabea	100 %	1999/09/21	30.219,82 €		Langilea aldi baterako ezintasun egoeran dagoenez, 8. langileak ordezkatzen du. Ezintasun iragankorreko egoeran. Kilometroen akordioa: 0,388 €/km 500 km arte, 0,601 €/km 500 km baino gehiago
3	Operario 8	100	Mugagabea	100 %	1999/11/02	20.867,55 €		Kilometroen akordioa: 0,388 €/km 500 km arte, 0,601 €/km 500 km baino gehiago
4	Operario 1	109	Mugagabea	100 %	2007/03/04	16.329,97 €		
5	Operacio C	109	Mugagabea	100 %	2015/10/19	16.663,56 €		
6	Operario B	209	Mugagabea	60 %	2019/09/19	11.976,07 €		
7	Coordinador/a	100	Mugagabea	10 %	1991/10/01	4.072,68 €	1.223,22 €	

Subrogatu beharreko langile ordezkoen zerrenda (titularrak lanpostua gordetzeko eskubidea duenean)

	Kategoria	Kontratu kodea	Kontratua	Lanaldia	Antzinatasuna	Urteko soldata gordina	Gizarte Segurantza	Oharrak
8	Encargado/a	410	Ordezkapenekoa	100 %	2022/10/14	27.831,84 €		Langile hau 2. langilea ordezkatzen ari da

II. ERANSKINA: MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA (“C” ARTXIBO ELEKTRONIKOA)

Ordezkariaren datuak:
Izena eta abizenak:
NAN:

Enpresaren datuak:
Izena:
IFK:

Plegu hauen objektu diren lanak egiteko hurrengo eskaintza egiten duela:

PREZIOA: konpromisoa hartzen dudala aipatutako lana ondorengo prezioan egiteko:

	Lizitazioaren gehienezko aurrekontua (BEZ gabe)	Eskaintza (BEZ gabe)
1. urtea	179.279,40 €	… €
2. urtea	185.374,90 €	… €
3. urtea	187.228,65 €	… €
4. urtea	189.100,93 €	… €
Guztira	**740.983,88 €**	**… €**
		Eskaintza ekonomiko osoa

HOBEKUNTZAK: konpromisoa hartzen dudala honako hobekuntzak gauzatzeko, Usurbilgo Udalarentzako kostu gehigarririk gabe:

- Lanabes eta baliabide lagungarri gabe irisgarriak ez diren kristal guztiak garbitzea: igerilekukoak barrutik eta kanpotik, fatxadakoak, leiho altuak kanpotik, etab.:
  - Urtean …….aldiz

- Oiardo kiroldegiko sarrerako alfonbra eta antzekoak hornitzea, aluminiozko egituraduna:
  - Bai…… edo Ez……..

- Konpreseroak hornitzea, mantentzea eta bere hondakinak kudeatzea, kontratuak bere baitan hartzen dituen kirol instalazio guztietan (38 unitate):
  - Astean….. aldiz
  - Ez da hornituko …….

- Lehortze bizkorreko esku-lehorgailu elektrikoak hornitzea Oiardo kiroldegian, esku-papera ordezteko (15 unitate):
  - Irizpide guztiak betetzen ditu…..
  - Bi irizpide betetzen ditu ….
  - Ez du irizpiderik betetzen

BERDINTASUNA (8.1.c atala): badudala emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko bereizgarri, ziurtagiri edo etiketa bat, edo Zuzenbideak onartutako edozein frogabideren bitartez ziurtatu ahal izango dudala bereizgarri edo ziurtagiri horiek ezarritako betekizunak betetzen ditudala, eta kontratua gauzatu bitartean horri lotutako langileei berdintasun neurri edo betekizun horiek aplikatzeko konpromisoa hartu eta adierazten dudala.

- BAI /EZ (bat adierazi).

(Oharra: bereizgarri, ziurtagiri etiketa edo bestelako frogabideak ez dira agiri honekin aurkeztu behar; eskaintza onena egin duen lizitatzaileak aurkeztu beharko ditu, SPKLko 150.2 artikuluko izapidean).

Eta jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut
(lekua eta data adierazi).